

## Lanki ikertegiko bi kide Suedian izan dira, Skills proiektuaren bilera batean

2008/12/10

Azaroaren 10etik 14ra bitartean, **Lanki ikertegiko bi kide** Suedian izan ziren, Skills Kooperatiba Ikasketak programaren jardunaldietan parte hartzen. Europako Batzordeak sortu zuen Skills egitasmoa, eta beronek dirua jasotzen du **Lifelong Learning** eta **Leonardo da Vinci** egitasmoetatik. Skills programak helburua du edukiak eta ikasketa sistema berritzaileak sortzea, kooperatibistak prestatzeko, berauek izan daitezten jantziagoak eta eraginkorragoak.



### Partaideak

Skills proiektuan partaide dira Suedia, Finlandia, Italia, Turkia eta Euskal Herriko kooperatiba mugimenduak eta zenbait unibertsitate. Zehatz-mehatz, hauek:

- Federazione Trentina della Cooperazione (FTC). Italia.
- Cooperation Kooperativ Utveckling Skaraborg (KUS). Suedia.
- Swedish TelePedagogic Knowledge Center (STPKC). Suedia.
- Anadolu Bil Meslek Yuksek Okulu (ABPSHE). Turkia.
- Kemi-Tornion ammattikorkeakoulu (KTP). Finlandia.
- Lanki Lankidetzaren Ikertegia. Euskal Herria.

Une honetan bilerak kompetentzien esparrua sortu du. Hurrengo pausoa, berriz, izango da esperru hori edukiz bete eta balidazio sistema bat finkatzea. Proiektuaren azken emaitzak 2009 urtearen amaierarako espero dira.